

# Txertoen dekalogoia

Jarri txertoa, babestu

**1. Gure osasuna babesten dute.** Txertoek gaixotasun larriak eta heriotza eragin dezaketen birus eta bakterio batzuetatik babesten gaituzte. Gure defentsak aktibatzen dituzte eta mikroorganismoetatik **defendatzen laguntzen gaituzte.**

**2. Bizitzak salbatzen dituzte.** Gaur egun, oraindik, haurrak eta helduak hiltzen dira txertoen bidez prebenitu zitezkeen gaixotasunen ondorioz; esaterako, poliomieltisa, tetanosa, meningitisa, difteria, kukutxetula... Dударik gabe, **txertaketa eta edateko uraren arazketa** izan dira, historian zehar, bizitza gehien salbatu dituzten osasun publikoaren esku-hartzeak, eta oraindik ere hala da.

**3. Gaixotasunak kontrolatu eta desagerraraz ditzakete.** Herri askotako ahalegin koordinatuarekin, **betiko** desagertzea lor daiteke. Adibide bat baztanga da; 1978an, urtean bost milio heriotzeraino sortu ondoren, betiko desagerrarazi zen. Poliomieltisa ere desagerraraztetik gertu dago. Eta beste gaixotasun batzuk (difteria, tetanosa, errubeola, etc.) asko gutxitu dira.

**4. Minbizi kasu eta endekapenezko gaixotasun batzuk prebenitzen dituzte. Frogatuta dago** B hepatitisaren txertoak zirrosia eta gibekeko minbizia prebenitzen dituela, eta papilomaren txertoak umetokiko minbiziarena. Elgorriaren txertoak gaixotasun neurodegeneratiboak prebenitzen ditu.

**5. Txertaketa ez da bakarrik "haurren kontua".** Txertoak **adin guztietakoei** jarri behar zaizkie: haurrei, nerabeei, helduei. Batetik, bizitzan zehar, herritar osasuntsuei eta osasun-egoera bereziarengatik arrisku gehiago izan ditzaketenei, eta bestetik, **egoera berezietan** (haurdunak, nazioarteko bidaiak, profesio batzuetan...).

**6. Solidarioak dira.** Norbera babesteaz gain, **besteak ere babesten** ditu, gurekin harremanetan daudenak. Gaixotasuna transmititzea galarazten dute. Txertoa jarri ez duten edo defentsa gutxi duten pertsonengan efektu babeslea dute: "taldearen immunitatea" da.

**7. Seguruak eta eraginkorrak dira.** Gezurrezko mito asko dago txertoen gainean. Medikuntzan erabilitako produktu seguruaren artean daude eta **kontrol eta ikerketa zorrotz-zorrotzak pasatzen dituzte.** Edozein txertok sor dezake ondorio txarren bat, hala ere, gehienak onberak, iragankorrak eta kontrolaerazak dira.

Txertoek benetako oso kontraindikazio gutxi dituzte.

**8. Oinarritzko eskubidea da.** Ez dago arrazoirik txertoen bidez prebenitu daitekeen gaixotasun batengatik haur bat hiltzeko edo ondorio larriak izateko. Espainian, Estatuko Osasun Sistemak doan ematen ditu haurrentzako txerto gehienak, adinaren arabera. Adinez txikiak direnei txertoa jartzeko erabakia gurasoen edo tutoreena da. **Haurrei ez diegu eskubide hori ukatu behar.**

**9. Bizitza-estilo osasuntsu baten zati dira.** Osasuntsu mantentzeko, txertoak elikadura eta ariketa fisikoa bezain garrantzitsuak dira.

**10. Txertaketaren gaineko aholkuak:** Informa zaitez aholkatutako txertoen egutegiaz eta joan zure osasun zentzora aurreikusitako egunetean. Eraman zure txertoen liburua edo txartela, jartzen dizkizuten txertoen oharrak idazteko. **Zalantzarik baduzu, galdetu zure pediatra edo erizainari.** Eta, atzerrira joateko asmoa baduzu, egin denbora nahikoaz.

